



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko urriaren 3a

84. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait foru legeren aldaketa susta dezan, administrazio-isiltasuna inpugnatzeko preklusio-epeen araubide juridikoari buruzko txosten bereziaren edukari jarraikiz. Unión del Pueblo Navarro, Nafarroa Bai eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeek eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteez aurkeztu dute (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola- eta gizarte-laguntza plan bat presta dezan Oitk 3 urtera bitarteko haurrentzat. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakiteko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren iritzia Eguesibarko Udalak eginiko hirigintza arloko aldaketari eta 30.000 etxebizitza eraikitzeko proposamenari buruz, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (8. or.).

—Galdera, jakiteko 2008ko Julián Gayarre Nazioarteko Kantu Txapelketak bete ote dituen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak ezarritako helburuak, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (8. or.).

—Galdera, Elizondoko Frantzisko Xabierkoa ikastetxean British eredu ezartzeari buruzkoa, Paula Kasares Corrales andreak egina (9. or.).

—Galdera, Nafarroako mendialdeko ikastetxe batean British eredu ezartzeko asmoari buruzkoa, Paula Kasares Corrales andreak egina (10. or.).

- Galdera, Moderna plan estrategikoari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (10. or.).
- Galdera, jakiteko ablazioa jasandako zenbat emakume detektatu dituzten osasun sistema publikoan, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (11. or.).
- Galdera, zerbitzu zorroari buruzko zenbait argitalpeni buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako erakundeei itzaleko dirusarien kontzeptuarengatik ordaintzeko gelditzen zaizkien baliabideei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako enpresa publikoen multzoak gaur egun duen zorrari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (13. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

- Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen 2008ko egoerari buruzko eztabaida egiteko (14. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2008ko irailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2008ko uztailaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzeko Foru

Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia eta Ogasun Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2008ko urriaren 27ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait foru legeren aldaketa susta dezan, administrazio-isiltasuna inpugnatzeko preklusio-epeen araubide juridikoari buruzko txosten bereziaren edukari jarraikiz.

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, NAFARROA BAI ETA SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA ETA CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro, Nafarroa Bai eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeek eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait foru legeren aldaketa susta dezan, administrazio-isiltasuna inpugnatzeko preklusio-epeen araubide juridikoari buruzko txosten bereziaren edukari jarraikiz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra, Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeek eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Nafarroako Demokraten Elkargunea foru parlamentarien elkarteek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez,

Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait foru legeren aldaketa susta dezan, administrazio-isiltasuna inpugnatzeko preklusio-epeen araubide juridikoari buruz Nafarroako arartekoak prestatu eta Foru Araubideko Batzordean aurkeztutako txosten bereziaren edukari jarraikiz.

Zioen azalpena

Nafarroako arartekoaren erakundeak administrazio-isiltasuna inpugnatzeko preklusio-epeen araubide juridikoari buruzko txosten berezia, erakundeak berak egina, aurkeztu du Foru Araubideko Batzordean, administrazio-isiltasunari buruzko foru legedian hautemandako zenbait akats nabarmentzeko xedez, eta zenbait iradokizun egin ditu, administrazioaren jardunari beharrezkoa duen eraginkortasuna emate aldera, herritarren eskubideak bermatzeari dagokionez eta herritarrei egocera bidegabe edo kaltegarriak ekidite aldera.

Zioak

Administrazio-isiltasuna –hala administrazio-koa nola jurisdikzio-koa– inpugnatzeko araubide juridikoa ezartzen duen Estatuko legediak preklusio-epe batzuk ezartzen ditu.

Foru Komunitateko legediak ere, Administrazio Auzitegian aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioak eta erreklamazio ekonomiko eta administratiboak arautzean, preklusio-epeak ezartzen ditu espresuki administrazio-isiltasuna inpugnatzeko. Gainontzeko administrazio-errekurtsoei dagokienez, Estatuko legediak ezartzen duen araubide juridikoari lotzen zaio oso-osorik.

Halere, bai doktrina zientifikoa bai, eta batez ere, jurisprudentzia (Konstituzio Auzitegiarena,

bereziki) araubide horien aurka daude, urratu egiten baitute, argi eta garbi urratu ere, administrazio-isiltasunaren biktimek duten oinarrizko eskubidea jurisdikzioa eta defentsa izatekoa, Espainiako Konstituzioko 24. artikulua jasotzen duena. Bi doktrina horiek araubide horien aurka daude, orobat, biktimari segurtasun juridikoaren printzipioa ez aplikatzea dakartelako.

Preklusio-epelen sistemak hauspoa ematen die inondik ere administrazio publikoei, espresuki ebazteko betebeharra bete ez dezaten, eta hortik heldu da administrazioa efizientziarik gabea izatea; hartara, urratu egiten da Espainiako Konstituzioko 103. artikuluan xedatutako agindu bat.

Edozein modutan ere, administrazio publikoak Konstituzio Auzitegiaren nahiz Auzitegi Gorenaren doktrinari ezinbestean lotu behar zaizkionez, araubide hori ez dago praktikan aplikatzerik. Araudi hori indarrean dago formalki, baina aplikaezina da, eta horrek inkoherentzia juridikoa dakarrenez, nahitaez sortzen dira nahasmena eta ziurgabetasuna, bai herritarren artean bai zuzenbidearen alorreko funtzionarioen eta profesionalen artean ere. Komeni da, hortaz, zenbait lege neurri hartzea, Nafarroan behinik behin betikoz buka dadin egoera penagarri eta nahasi hori, Konstituzioko 9.3 artikuluan ezartzen den segurtasun juridikoaren printzipioaren aurkakoa baita.

Horiek horrela, mozio hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen aldaketa susta dezan, halako moduz non hartan esplizituki jasoko baita ez dagoela preklusio-epetik administrazio-errekurtsoak jartzeko, Nafarroako Foru Komunitateko admi-

nistrazioaren administrazio-isiltasun positibo nahiz negatiboaren aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa susta dezan, halako moduz non hartan esplizituki jasoko baita ez dagoela preklusio-epetik administrazio-errekurtsoak jartzeko –berraztertzea eta gora jotzekoa, arrunta nahiz forukoa–, toki entitateen administrazio-isiltasun positibo nahiz negatiboaren aurrean, eta, bestetik, desagertuko baita Administrazio Auzitegian gora jotzeko errekurtsuari buruz 337.1 artikuluan jasotako zehaztapena, zeinaren bidez hilabeteko preklusio-epela ezartzen den toki entitateen administrazio-isiltasun negatiboa inpugnatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legearen aldaketa susta dezan, halako moduz non hartan esplizituki jasoko baita ez dagoela preklusio-epetik administrazio-errekurtsoak –berraztertzea eta erreklamazio ekonomiko eta administratiboa– jartzeko, tributu-administrazioaren organoen administrazio-isiltasun positibo nahiz negatiboaren aurrean, eta, bestetik, desagertuko baita Administrazio Auzitegian gora jotzeko errekurtsuari buruz 158. artikuluan jasotako zehaztapena, zeinaren bidez hilabeteko preklusio-epela ezartzen den berraztertze errekurtsorearen isilbidezko ezespina erreklamazio ekonomiko eta administrazioaren bidez inpugnatzeko.

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Eledunak: Samuel Caro Sádaba, Carlos García Adanero, Patxi Zabaleta Zabaleta, Ion Erro Armendáriz eta Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola- eta gizarte-laguntza plan bat presta dezan 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzat.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eskola- eta gizarte-laguntza plan bat presta dezan 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola- eta gizarte-laguntzako plan bat presta dezan 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzat.

Zioen azalpena

Gizartean nahiz familietan gertatu diren aldaketak eta haurraren gaitasunen lehen urteetako garapenari ematen zaion garrantzia lagungarri gertatu dira 0tik 3 urtera bitarteko haurren eskola- eta gizarte-laguntza sustatzeko eta hobetzeko.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaz geroztik esperientzia anitza izan dugu esparru honetan; orduan baimendu zen zenbait ikastetxetan bi urteko haurrak eskolatzea eta orokortu zen 4 urtetik aitzina eskolatzea. LOGSEarekin orokortu zen 1990ean 3 urteko neska-mutikoen eskolatzea, eta 2006an ezarri zen LOEren bidez 3tik 6 urtera bitarteko eskolatzearen doakotasuna. Oro har, nahiko pozik egon behar dugu gure herrian lehen haurtzaroari emandako hezkuntza-zerbitzua dela eta.

Halere, emakumea lan merkatuan sartu izanak, familiari dagokionez gizartean gertatutako aldaketek eta aitak eta amak, biek, seme-alaben hezkuntzaz arduratu behar izanak eragin dute 0tik 3 urtera bitarteko haurrak eskolatzeko eskaria igozea.

Azterlan guztien arabera, onuragarria da eskolatze goiztiarra, eta onura bereziki handia da ezgaitasun bati lotutako premiak dituzten haurren edo gizarte-ingurune zaileko haurren kasuan. Hortaz, 0tik 3 urtera bitarteko zikloak hezkuntzako behar du izan funtsean, eta aukera berdintasunerako oinarriak ezarri behar ditu.

Egun, Haur hezkuntzako lehenengo zikloa arautzen duen martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak arautzen du 0tik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntza-laguntza, LOE garatuz. Arau horrek ezartzen ditu zikloaren helburuak, ikastetxeek bete beharreko baldintzak, ikastetxeak irekitzeko eta haiek funtzionatzeko arauak eta zikloko hezkuntza-edukiak.

Hori dena gorabehera, egoki da taxutzea eskola- eta gizarte-laguntzako plan bat 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzat, zeinaren bidez, batetik, gaur egungo laguntza-ereduei buruz hausnartu eta, bestetik, hezkuntza-ziklo horren gizarte-erantzunaren dion gizarte- eta hezkuntza-laguntzako sare bat ezartzeko irizpideak finkatuko baitira.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du 0tik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntza eta laguntza plana presta dezan. Planak ondokoak jasoko ditu:

1. Ikastetxeen sarea hedatzea, toki entitateekin lankidetzan, familien eskariari erantzuteko. Toki entitateak finantzatzeko irizpideak berrikusiko dira, ziklo hori ezartzen laguntzeko.

2. Biztanle gutxiko landa eremuetan hezkuntza-zerbitzua emateko moduak aztertzea, ondokoak helburu: haur guztien aukera berdintasuna bermatzea, familiei bertan finkatzen eta gelditzen laguntzea eta landa eremuei garatzen laguntzea.

3. "Hezkuntza-guneak" sortzeko aukera aztertzea, hau da, Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeak eraikitzea haur eta lehen hezkuntzako bigarren zikloko ikastetxeen alboan, baliabideak aprobetxatzeko eta familiei seme-alaben hezkuntza-bizitzan parte har dezaten laguntzeko. Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeak lehen hezkuntzako ikastetxeekin batera egin litezke, berritik eraiki behar direnean.

4. Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeak lan-inguru-neetan jartzeko aukera aztertzea: merkataritza eremuak, ospitale, industria, unibertsitate eremuak eta abar.

5. Jarduketa berariazkoak garatzea, ziklo horretan eskolatzeko eskari handiena duten herrietan.

6. Otik 3 urtera bitarteko dekretutik kanpo gelditu diren establezimenduak arautzea, uste baitugu ahalik eta gehien babestu behar direla haur txikiak artatzeko baldintzak.

7. Bi urteko gelak ezartzea.

8. Prestakuntza plan berariazkoak garatzea, Otik 3 urtera bitarteko ikasleen hezkuntzaz eta laguntzaz arduratuko diren profesionalentzat.

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren iritzia Eguesibarko Udalak eginiko hirigintza arloko aldaketari eta 30.000 etxebizitza eraikitzeke proposamenari buruz.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren iritzia Eguesibarko Udalak eginiko hirigintza arloko aldaketari eta 30.000 etxebizitza eraikitzeke proposamenari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer iritzi du departamentuak Eguesibarko Udalak eginiko hirigintza arloko aldaketari eta 30.000 etxebizitza eraikitzeke proposamenari buruz? Halaber, departamentuaren ustez, proposamen hori bat al dator lurraldearen antolamenduko jarraitzeekin edo Nafarroako lurralde estrategiarekin?

Iruñean, 2008ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, jakiteko 2008ko Julián Gayarre Nazioarteko Kantu Txapelketak bete ote dituen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak ezarritako helburuak.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko 2008ko Julián Gayarre Nazioarteko Kantu Txapelketak bete ote dituen Vianako Printzea Erakundea-Kultu-

ra eta Turismo Departamentuak ezarritako helburuak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurrak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, Julian Gayarre Nazioarteko Kantu Lehiaketa dela-eta, ondoko galdera egingen du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun dakion.

Julian Gayarre Nazioarteko Kantu Lehiaketak bete al ditu aurten (2008. urtean) Kultura Departamentuak ezarriak zituen helburuak?

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Elizondoko Frantzisko Xabierkoa ikastetxean British eredia ezartzeari buruzkoa.

PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, Elizondoko Frantzisko Xabierkoa ikastetxean British eredia ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Paula Kasaresek Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko galdera hauek egin nahi ditu Hezkuntza Departamentuko Kontseilariak izen bereko batzordean ahoz erantzun diezaien.

Hezkuntza kontseilari jaunak Almandozko eskola berriaren ate zabaltze ekitaldi ofizialean Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxean British eredia ezartzeko asmoa azaldu zuen.

Hori dela eta, ondokoa da parlamentari honek egitasmo horren inguruan kontseilari jaunak argitu eta zehaztea nahiko lituzkeenak:

– Elizondoko ikastetxe publikoan Departamentuak ezartzeko asmoa duen eredia oraingo bertze eredu (A eta D eredu) ondoan eskainiko da ala horien orde?

– Eredua hori ezarri al da bertze tokiren batean? Hala bada, ebaluatu al da? Hala bada, zein izan da ebaluazioa ikasleek eskuratzen duten hezkuntza ezagutza-mailetan?

– Departamentuak duen egitasmoa aitzin eramateko, nola begiratuko du ikastetxearen autonomia, nola hartuko du kontuan ikastetxearen iritzia?

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria Paula Kasares Corrales

Galdera, Nafarroako mendialdeko ikastetxe batean British ereduaz ezartzeko asmoari buruzkoa.

PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako mendialdeko ikastetxe batean British ereduaz ezartzeko asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Paula Kasaresek Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko galdera hauek egin nahi ditu Hezkuntza Departamentuko Kontseilariak izen bereko batzordean ahoz erantzun diezaien.

Hezkuntza kontseilari jaunak Nafarroako Mendialdeko ikastetxe batean, Baztango San Frantzisko

ko Xabier ikastetxean, hain zuzen ere, lehen aldiz British ereduaz ezartzeko asmoa azaldu berri du.

Hori dela eta, ondokoa da parlamentari honek Mendialdeko udalerriri batean British ereduaz ezartzearen gainean kontseilari jaunak argitu eta zehaztea nahiko litzuzkeenak:

– Hezkuntza Departamentuak Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxean ezartzeko asmoa duen British ereduaren bidez, zein da erdietsi nahiko lukeen emaitza; hau da, ikasleek hezkuntza-etapa bakoitza bukatuta, hizkuntza ofizialetan eta atzerriko hizkuntzan zer ezagutza-maila erdietsita izatea nahiko luke Departamentuak?

– British ereduak nola landuko ditu hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntza? Hau da, zer modutan gauzatuko da TIL (Tratamiento Integrado de Lenguas, hau da Hizkuntzen Tratamendu Integratua) edo CLIL (Content and Language Integrated Learning, hau da Edukiak eta Hizkuntzak Ikaste Integratua) programak? Ikasleek asteko eskola orduak eta curriculumeko ikasgaiak zein hizkuntzetan landuko dituzte? Eta zer hizkuntza ezagutza-maila eskatuko zaie irakasleei?

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Paula Kasares Corrales

Galdera, Moderna plan estrategikoari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Moderna plan estrategikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak Nafarroako 2008rako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Legearen aurreproiektua dela-eta eginiko txostenean adierazi zuen ezin izan zela identifikatu kontusail bat ere Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial izenekoaren lanei laguntzeko.

Parlamentari honek galdera bat aurkeztu zuen, jakiteko ea laguntzarik edo dirulaguntzarik eman zaion edo emanen zaion fundazio horri, eta Nafarroako Gobernuak erantzun zuen ez zaiola inolako dirulaguntzarik eman.

Iragan irailaren 12an aurkeztu zen jendaurrean Moderna izeneko plan estrategikoa, eta Nafarroako Gobernua horren zuzendaritzan dago.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Nafarroako Gobernuak 2008an bideratu edo bideratuko al du, zuzenean nahiz zeharka, inolako diru kopururik Moderna plan estrategikora? Baiezekoan, ondokoak jakin nahi ditugu: zenbatekoa, kontzeptua eta erabilitako kontusaila. Itunik edo akordiorik baldin badago, horren kopia jaso nahi dugu.

b) Ba al dago asmorik edo konpromisorik 2009an kontzeptu horrengatik beragatik dirurik emateko?

c) Plan horren txostenean jasota ageri da Monitor eta AFIren laguntza izanen dutela, haiek irabazi baitzuten eredu berri hori garatzeko lehia-keta publikoa, 2008ko martxoan egina. Esleipenaren baldintza ekonomikoak eta bestelakoak zein izan diren jakin nahi dugu.

d) Zuzendaritzako gainontzeko kideek edo sustatzaileek ba al dute inolako konpromiso ekonomikorik? Hala baldin bada, zein dira konpromiso horiek?

Iruñean, 2008ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, jakiteko ablazioa jasandako zenbat emakume detektatu dituzten osasun sistema publikoan.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ablazioa jasandako zenbat emakume detektatu dituzten osasun sistema publikoan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

• Ablazioa jasan duten emakumeei buruzko galdera.

• Ablazioa jasandako zenbat emakume detektatu dituzte osasun sistema publikoan?

• Oinarrizko osasun laguntzan edo ginekologian ba al da osasun laguntzako inolako protokolorik halako kasuetarako?

Iruñean, 2008ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, zerbitzu zorroari buruzko zenbait argitalpeni buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, zerbitzu zorroari buruzko zenbait argitalpeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zerbitzu zorroari buruzko zenbait argitalpeni buruzko galdera.

- Zein da zerbitzu zorroaren prestazioen argitalpen berriaren kostu zehatza?

- Zein da zerbitzu zorroari buruzko iragarkien kostua?

- Zergatik ez da sartu kontusail hori departamentu horretarako iragarri den %4ko erreserban?

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Nafarroako erakundeei itzaleko dirusarien kontzeptuarengatik ordaintzeko gelditzen zaizkien baliabideei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako erakundeei itzaleko dirusarien kontzeptuarengatik ordaintzeko gelditzen zaizkien baliabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako erakundeei zenbat baliabide gelditzen zaizkie ordaintzeko, itzaleko dirusariak direla eta?

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako enpresa publikoen multzoak gaur egun duen zorrari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako enpresa publikoen multzoak gaur egun duen zorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zenbatekoa da Nafarroako enpresa publikoen multzoak gaur egun duen zorra?

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen 2008ko egoerari buruzko eztabaida egiteko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egin dadin eskatzen duena, Osoko Bilkurak eztabaida dezan, Legebiltzarreko Erregelamenduko 198. artikuluan xedatuarekin bat etorritz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen 2008ko egoerari buruzko eztabaida egiteko

Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen 2008ko egoerari buruzko eztabaida egiteko

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 200.1 artikulua ezartzen duenez, legegintza-urtearen lehendabiziko bilkuraldiaren hasieran, salbu eta Gobernuak lehendakariaren inbestidura eztabaida egin izan denean edo bilkuraldi horretan hauteskundeak egin behar direnean, Osoko Bilkura berezia eginen da Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida bat egiteko.

Horrenbestez, eta arau hori betez, Nafarroako Gobernuak 2008ko irailaren 15ean egindako bilkuran erabaki zuen Nafarroako Parlamentuari eskatzea Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida egin dezan.

Une bereziki zail eta zalantzaz betea bizi dugu, nazioarteko ekonomia-inguruabar zoritxarrekoen ondorioz. Inguruabar horiek eragiten duten krisi

ekonomiko handiaren aurrean beharrezkoa da presako neurriak hartzea, ahal den neurrian ekiditearren krisiak gure ekonomian nahiz errealitate sozialean dituen ondorio negatiboak. Aurreikusita ditugun dirusarreretara egokitu behar ditugu gastuak, eta eskuera ditugun kanpo-finantzaketako bitartekoak baliatu behar ditugu, murriztu ezin diren beharrezkoen aurre egiteko.

Egoera honetan, bada, funtsezkoa da kontzertazio soziala bultzatzea, eta hala egin zen iragan otsailean, Nafarroako garapen iraunkorreko akordio soziala sinatu baitzuten Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak eta ordezkari handiena duten sindikatuek –UGT eta CCOO–; akordio haren bidez, ekintza-esparru zabala ezarri zen, gure erkidegoaren aurrerabide ekonomiko eta soziala bermatze aldera. Nafarroan badugu hamar urtetik gorako esperientzia luze eta emankorra, eta eutsi egin behar diogu horri, bai eta etorkizunean indartu ere, lorpen berri eta are garrantzitsuagoak lortuko baditugu.

Bestalde, ahalegina emendatu behar dugu, eta beharrezkoak diren inbertsioak bultzatu behar ditugu, arrakasta izateko berme handiagoarekin aurre egiteko etorkizunari; Gobernuak eta Nafarroako alderdi sozialistak horregatik sinatu zuten, hain zuzen ere, iragan apirilaren 14an, Nafarroako 2012 plana, zeinaren kariatara inbertituko baitira hurrengo lau urteetan 4.508 milioi euro gizarte-zuzkiduretan eta azpiegitura publikoetan. Alegia, gizarte-eraldakuntzarako inbertsio-ahalegin aurrerik gabea eginen da.

Bestalde, Estatuko administrazio zentralarekin jada konprometituta daude Nafarroarentzat nahiz Espainiarentzat berebiziko garrantzia duten zenbait azpiegitura, esaterako Abiadura Handiko Trena; laster, horri buruzko xehetasunak erabaki beharko ditugu, Nafarroaren autogobernu-araubide berekiak eskaintzen dituen aukerak baliatuta, azpiegitura horien kudeaketa ahal den guztia aurreratu ahal izan dezagun.

Esparru instituzionalean, autonomia erkidegoen araubide juridikoaren eta ekonomikoaren balizko aldaketen aurrean, Nafarroa bere autogobernua mantendu eta bultzatzeaz arduratu beharko da, Espainiako gainontzeko herriekiko leial eta solidario, Estatuko administrazio zentralarekiko harremanetan ohiko ezaugarria izan denari jarraikiz. Orobat akuilatu eta bultzatu beharko dira terrorismoaren izurria borrokatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak, hala indarkeria-ekintzak nola terrorismoa babestu, finantzatu edo justifikatzen duten azpiegiturak borrokatzekoak.

Nire ustez, une honek eta bizitza publikoan marraztuta dauden argudio garrantzitsuek oso interesgarri bihurtzen dute eztabaida hau, planteamenduan errealista izan behar duena, garapenean lasaia eta sakona, eta abiaburu gisa izan behar dituen herritarren beharrezkoak eta planteamenduak, proiektu, erabaki eta irtenbide baliozko eta koherenteak taxutzeko, zailtasunak gainditzen eta aurrerabidea eta ongizatea areagotzen laguntzen dutenak.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuan Foru Komunitateari buruzko eztabaida egitera deitzeko erabakia hartu duela jakinarazten dizuet.

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: Miguel Sanz Sesma



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	